



BARREN
TOKIKOM

Hiru txapelketa, hiru txapel

Leire Etxaniz, pilotaria





II. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.***

Familia



II. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



HARITZ



II. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

Zure oroimenak indartzen gaitu.



ELGOIBARKO UDALAREN
TXISTULARI TALDEA

ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Guztia alda dezake

detzen du. Honakoa da metodo horietako bat, sinpleena agian. Demagun herri bateko hauteskundeetan 9 zinegotzi aukeratu behar direla eta 4 alderdi aurkezten direla hauteskundeetara: A, B, C eta D. Demagun bozketa eta gero 1000 direla baleko botoak: A-k 400, B-k 300, C-k 200 eta D-k 100. Nola banatu 9 zinegotziak 4 alderdien artean, bakoitzak jasotako botuen proportzioak errespetatuz? Baleko boto kopuru totala eta banatu beharreko zinegotzi kopuruaren arteko zatidura $1000:9=111,1$ izanik, 112 botu beharko lirateke zinegotzi bakoitzeko (111rekin ez baita iristen). Gauzak horrela, $112 \times 1=112$, $112 \times 2=224$, $112 \times 3=336$, $112 \times 4=448$ izanik, A-ri

3, B-ri 2 eta C-ri 1 egokituko litzaizkieke. 6 zinegotzi banatuak genituzke horrela. Gainera A-ri $400-336=64$ boto sobratuko litzaizkioke (336 boto 3 zinegotzitik ordezkatu eta gero), B-ri 76, C-ri 88 eta D-ri 100 (denak). Metodo honen arabera hurrengo zinegotzia D-ri legokioke, boto sobrante gehien izatearren, hurrengo C-ri eta azkena B-ri. Eta fini. A alderdiak 3, B alderdiak 3, C alderdiak 2 eta D alderdiak 1. Ez da hau, ordea, gure udaletxeetan erabiltzen dena, D'Hondt sistema deitutakoa baizik. Metodoa aldatzeak, jakina, emaitzak ere aldatu ditzake. Eta honek guztia alda dezake. Alderdien botu kopurua berdina izanda ere. Horra zein eragin soilia izan dezakeen matematikak gure egunerokoan.

Ez pentsa! Esaterako, gurean indarrean dagoen sistema elektoral, ordezkariak proportzionalen sistema bat da. Eta ordezkariak proportzionalen problema ez dauka soluzio optimorik. Aukera eta metodo desberdinak daude eta metodo bakoitzak proportzionaltasunaren kontzeptio desberdina gor-

“Gure udaletxeetan erabiltzen dena, D'Hondt sistema deitutakoa da. Metodoa aldatzeak, jakina, emaitzak ere aldatu ditzake”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Elgoibarko IZARRAren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainoa Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainoa Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugeriza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
KULTURARENDETO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ XXVI. J.GURRUTXAGA KROSA

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 7an, jokaturako XXVI. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei, BM, Danobat Group, Ipar Control, Ipar Maquina, Ipar Spindle, Alyco, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Kutxabank, Egile, El Diario Vasco, Original, ILS, Bronymec, EgoToki, GARE Radio Club, Biena aroztegia, Elgoibarko Lagun Taldea eta Industrias Banat.

Bestalde eskerrik beroenak ere, parte-hartzaile guztiei. Datorren urtean, apirilaren 26an jokaturako den, XXVII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Krosa Batzordea

▶ ESKERRIK ASKO

Hotel Txarridunaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko Udalarri txirindularieri Guasseko aparkalekua erabiltzen uzteagatik. Era berean, herritarrei barkamena eskatu nahi diegu, egunotan aparkalekuan sortu diren eragozpenengatik.

Hotel Txarridunako zuzendaritza

▶ OHARRA

Aste Santuko oporrak tarteko, datorren barixakuan ez dugu BARREN aldizkaria kaleratuko. Hurrengo zenbakia apirilaren 26an jasoko duzue.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitzik argitaratuko.



VIII. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

Beti gure bihotzean.

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek



VIII. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

**Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir eztia
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.
Maitasunez, etxekoek.**

VIII. urteurreneko meza izango da, astelehenean, apirilaren 22an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





“Geure burua osatzeko ikasi genuen euskara; zegokigun komunitatera bueltatzeko”

► **XAMAR** IRAKASLEA

Ezaguna da Xamar (Garralda-Xamarrena etxekoa, 1956) Elgoibarren. 2008an etorri zen estrainekoz gureru *Euskal Kultura Tradizionala* ikastaroarekin, eta 2014an bueltatu zen *Euskara Jendea* ikastaroa ematera. Aparteko arrakasta izan zuten biek. Oraingoan bere azken lanarekin etorri da, *Etxera bidean* liburuarekin, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak Udalaren laguntzarekin antolatutako *Biba Hasier!* zikloaren baitan. Frankismoan sortu, hazi eta hezitako belaunadi baten istorioa jaso du orain arteko bere lanik pertsonalenean.

- IMANOL LARRAÑAGA JUARISTI -

◆ **Gustura egindako lanarekin, Xamar?**

Eginik dago, aspaldiko behar baten bukaera da, baina beti hobeki egin zitekeelakoan geratzen naiz zernahi lanekin.

◆ **Inork ere ez zuela irakurriko uste zenuen eta, dagoeneko, bigarren edizioa ere martxan dago.**

Harrigarriki! Bai, liburuak oso harrera ona izan du eta horrek poza ematen dit. Badirudi denok, era batean ala bestean, bizi izan dugun gaia dela: Herri honek pairatu duen akulturazioa dator liburuan, eta, bereziki, horren kontrako gure borroka.

◆ **Zergatik idatzi duzu liburua? Zertarako?**

Lehenengo helburua Aezkoa ibarra ezagutaraztea zen. Nafarroako ekial-

deko mendietan –hala edo hola– euskara atxiki duen azken ibarra da eta ez da gure letretan ageri. Gainera, Aezkoak badiu ez ohiko diren ezaugarri berezi batzuk: hala nola, ibar liberala eta antiklerikala izatea, tradizio karlista eta elizkoitik nabarmenki aldentzen duena.

◆ **Dibulgazio-lanak, besteak beste, “ez dakigula jakiteko” egiten zenituela irakurri nizun elkarrizketa batean. Euskaldunok ez dugula gure Herria ezagutzen, eta ezagutzen ez dena ezin dela maitatu edo baloratu.**

Dakigun bezala, hizkuntzaren bizitzan hiru eragileetariko bat motibapena da, ezagutza eta erabilpenaren ondoan. Baina, nola lantzen da motibapena? Batetik, hizkuntzari, euskarari, dagokion kul-

tura (historia, folklorea, usadioak, geografia, literatura...) ezagutzera emanda; eta, bestetik, inposatu zaizkigun kanpoko begirada arrotzak baztertuz. Gure Herria ezagutzeko begirada autonomo eta beregainak - askeak - bakarrik ematen baitio zentzua hizkuntza komunitateari edo nazioari.

◆ **Memoria historikoa hain modan dagoen honetan, liburu hau, besteak beste, hori ere badela esan zenidan e-mail batean. Memoria historikoa ezin dela gerrari edota gatazka armatuari bakarrik lotuta egon.**

Bai, hemen memoria historikoa aipatzen den bakoitzean 1936ko gerrari buruz ari dela ikusten dut, baina gerraren aurretik eta ondoren gertatu zena ere me-

moría historikoa da niretako. Hain zuzen, liburu honetan kontatzen dudana gerratik hogei urtetara sortutako gazte batzuen bizipenak dira; gazte horiek bizi dutena gerra haren ondorio zuzena da.

♦ ***Etxera bidean da liburuari jarri diozun izenburua. Orhipean liburuan atal bat eskaini zenion etxeari. 2016an, berriaz, Etxea liburua argitaratu zenuen. Zer da etxea euskaldunontzat?***

Etxea dena izan da gure kulturaren zenbait mendetan; gure gizartearen oinarritzko erakundea izan da. Kasu honetan esanahi metaforikoa dauka; "etxera" itzulzea erdaldun hazitako jende batek bere sustraiak eta mintzaira berreskuratzeko egindako bidaia da. "Atzeritik etxeratzeko" bidea da, liburu azalean ageri den bezala.

♦ ***Zerk bultzatzen du Garraldako gazte bat herriko nagusiengana joan eta berriekin orduak eta orduak pasatzera? Zeren bila, Xamar, Garraldako etxetako sukalde eta atarietan?***

Lapurto ziguten herria ezagutzeko egoten ginen herriko nagusiekin. Guri Garralda euskalduna ebasi ziguten: hizkuntza, kultura, istorioak, ohiturak, ipuinak, kontuak, gertaerak... Eta, une batez, nerabezaroan, deskubritu genuen hori guztia gure nagusien bizipenetan zegoela, haien jakintza zela. Hori dena jakiteko egoten ginen sukalde eta atarietan, baina horretarako hizkuntza gakoa zela ohartu ginen, euskara behar genuela. Beraz, euskara ikasten hasirik, gainerako guztiaren berri izatea nahi genuen. Guk galdutako "argazki" osoa nahi genuen... Nahia baino gehiago, beharra zen.

♦ ***Gogoratzen duzu noiz edo zergatik sumatu zenuten behar hori?***

Aski bat-batean hutsune bat genuela ohartu ginen, euskarak bakarrik bete zezakeen hutsunea. Euskara zen gerra ondoko gure herriko kultura eta historia ulertzeko giltza.

♦ ***Liburuan dator herriko emakume batek zer esan zizuen plazan euskaraz ari zinetela entzun zuenean: "Para qué, si no vale para nada!". Zer erantzun zenuen?***



Hasieran ez nuen ulertzen gu egiten ari ginen bidaiak zergatik mintzen zuten jende bat, baina poliki-poliki ikasi genuen aurre egiten holakoei. Emakumeari emandako erantzuna garbia izan zen: Gu geu izateko balio du euskarak, pertsona moduan osatzeko.

♦ ***Egin zenutena ez zenutela euskarerengatik egin entzun dizut. Zuegatik egin zenutela.***

Euskara hizkuntza bat da, gramatika eta hiztegi bat; horrek ez du sentitzen. Baina hiztun komunitateak bai, hiztunok sentitzen dugu, eta gu horren parte ginen... Erdaldun heziak, baina komunitate horren parte ginen; huts egindako parteak. Geure burua sendatzeko ikasi genuen euskara; zegokigun komunitatera bueltatzeko. Geure buruaren alde ari ginen garbiki.

♦ ***Zuek egindako ibilbideak ekarri zuen ondorio lazgarrikeri herrian. Honela idatziz duzu liburuan: "Maite genuen jende zenbaitekin ere hausturak gertatu ziren. Herri osoko harremanak berrantolatzen***

"Lapurto ziguten herria ezagutzeko egoten ginen herriko nagusiekin"

ari ziren emeki. Argi zen, urtetan lurperatutako identitatea azaleratzerakoan, bortxazko berdintasun eta batasun falsuak hautsi egin ziren".

Bai, gaiak zatitu egin zuen herria nabarmenki: euskara eta gure kulturaren alde zeudenak, alde batetik, eta kontra zeudenak, bestetik. Zatiketa honetan preziatzen edota maite genuen zenbait jende kontrako alorrean gelditu zen, eta penagarria izan zen. Ebidenteki, bi aldeak nabarmenak dira gure herrietan, baina baita nazio mailan ere, egunero politika munduan ikusten dugun bezala.

♦ ***Urak bere onera etorrira egongo dira, ezta?***

Nonbait hor!

♦ ***Zer eman dizu zuri euskarak, Xamar? Zer izango zinateke gaur egun, gaztetan euskara ikasi eta Garraldako lurra-ekin bat egitea erabaki izan ez bazenu?***

Ez dut denbora galtzen holakorik pentsatzen; beti hurrengo urratsa izaten dut gogoan, jakin gabe horrek nora eramaten nauen. Hala ere, ez dago dudarik: Herri honek tamalez duen alienatu andana herrietariko bat gehiago izanen nintzatekeen.

♦ ***Eta zuk zer eman diozu euskarari? Zer ematen diharduzu?***

Herriari buruz ikasten dudana erakusten eta zabaltzen saiatzen naiz ni. Arrazoi historikoen ondorioz ezagutzen ez dugun



Xamar eta Imanol Larrañaga, Kultur Etxean egindako elkarrizketako une batean.

gure kulturaren dibulgazioa egiten dut. Izan ere, amildegi bat dago Herriari buruz dagoen gaur egungo ezagutzaren eta jendeak, oro har, dakienaren artean. Zulo hori betetzen saiatzen naiz.

♦ **Zuen "irakasleak" Garraldara afari truke joaten zirela esaten duzu liburuan. Beste lan bat egin behar zutela derrigorrean. Gorka Arresek gurean eman zuen hitzaldi bat etorri zait burura, euskal kulturagileen bizi-baldintza eskasak azaleratuz. Zein dira gaurko "irakasleak" baldintzak? Afari truke zabiltzate oraindik? Beste lan bat egin behar duzue derrigorrean? Baduzue prestigio-rik gure gizaratean?**

Euskaraz egiteak automatikoki marginalian kokatzen zaitu, ez gaitzezen engaina, euskaldungoa gutxiengo bat baita Euskal Herrian. Kontu ezaguna da kulturagile guztiak, salbuespenak salbuespen, beste lan batean aritu behar direla nahi ala ez. Panorama honetan, prestigioarena... zirkulu txiki zenbaitetan ezaguna izan zaitezke, baina besterik ez.

♦ **Liburua, besteak beste, Aezkoa hobeto ezagutzeko da, eta bertako negua oso gogorra dela aitatzen duzu; otsaila, bereziki. Egutegia ere berezia daukazu, ezta?**

Aezkoako herriak Euskal Herriko gaurienak dira. Bertakoa da Abaurregaina, 1.000 metrotan dagoen bakarra, eta, on-

"Herriari buruz ikasten dudana erakusten eta zabaltzen saiatzen naiz"

dorioz, aski hotzak dira neguak. Egutegia horretara egokiturik daukagu. Urteko lehen hilabetea izotzila da, izotzarena alegia, eta gero, udazkenean, hilabeteak aurreratu egiten dira. Adibidez, ez dago irailik, eta bere tokian urria daukagu; urriaren tokian azaroa, eta, ondoren, bi abendu ditugu: azaroaren lekuan "lehen-biziko abendu" eta "bigarren abendu" edo abendu, besterik gabe.

♦ **Otsaila egutegitik kentzeko proposamena ere egin omen zuten zuen aurrekoek!**

Kontu zaharra da. Hotzenetarikoa izanik, ibarreko biztanleak, aetzak, bildu omen ziren batzarrean otsailarekin zer egin erabakitzeko. Pentsatu omen zuten bere egunak gainerako hilabete guztien artean sakabanatzea, baina Joanes Iriartekoak –hemengo Fernando Amezketarra bezalako pertsona bat– ohartarazi zuen hori eginez gero urteko hilabete guztiak kutsa zitezkeela. Otsaila bere horretan uztea erabaki zuten azkenean.

♦ **Liburua irakurtzen hasi eta berehala ohartu nintzen irakurtzen niharduen euskara ez zela orain arte idatzi duzun liburuetan erabili duzuna. Hasieran apur bat kostatu zitzaidala ere aitortuko dizut.**

Pertsona nagusiak mintzo direlarik, Aezkoako euskarari utzi dut testua. Beste gauzen artean, dagoeneko desagertutzat eman daiteke hango euskara, eta euskara hori ere ez da ageri gure letretan. Utzi nahi nuen testigantza hori, Bonapartek eginaraziko katiximak baino zerbait xamurragoa eta interesgarriagoa izan zezan publiko zabalak. Eta, gizona, ez da hain zaila! Euskara da! Segur naiz (eta dagoeneko hala esan didate) gure hizkuntza maite duen orok gustura ezagutuko duela ekialdeko azpieuskalki arkaiko (omen) hori, Bonapartek eta Azkuek hain maitea zutena.

♦ **Zuen amatxirekin hasi eta amaitzen da liburua. Zergatik?**

Amatxiren hitzak, lehenengo aldiz euskaraz egin nionean, iltzaturik gelditu zitzaizkidan gogoan: *pero, ... ¿por qué hablas así mi chico?* Orduan ez nintzen ohartu esaldi harek erakusten zuen dramaz. Baina, berrogei urte pasa ondoren, esaldiaren garrantzia agerian jarri zait garbiki. Ez nuen dudarik: gure amatxirekin hasi behar zuen liburuak eta, birbiltzeko, amatxirekin bukatu behar zuen.

♦ **Amaitzeko, eman Etxera bidean liburua erosi eta irakurtzeko arrazoi bat.**

Liburua Euskal Herri ezezagun bat ezagutzeko gonbitea da alde batetik, eta, bestetik, bere sustraiak berreskuratu nahi dituen belaunaldi baten istorioa kontatzen du. Etorकिन seme-alaba batzuek (Jon Maiak, Sonia Gonzalezek...) kontatu dituzte beren ibilbideak eta sentimenak gure hizkuntza eta kulturari barneratzeko, baina ez zen etorkina izan behar egoera hori pairatzeko. Nik horren lekukotasuna ere utzi nahi nuen.

1979an alkate aukeratu zituztenak omendu ditu Eudelek



Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak 1979ko alkateak omendu zituen joan zen barixakuan, 36ko Gerra osteko lehen udal hauteskundeen 40. urterrena ospatzeko. Hego Euskal Herriko biztanleek 1979ko apirilaren 3an izan zuten aukera estreinakoz udal ordezkariak hautatzeko, eta Elgoibarren Luis Arrieta Barrenetxea (1930-2014) izan zen demokrazia garaiko lehen alkatea. Gernikako Batzar Etxean egin zieten omenaldia Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hautatu zituzten 228 alkateei, *Makila eskuz esku 40 urtez lelopean*.

Hauteskundeetarako dituzten asmoez aritu dira Jon Peli Uriguen eta Juan Karlos Izagirre



EHBilduk antolatuta, Jon Peli Uriguen Elgoibarko alkategaiaren eta Juan Karlos Izagirre Gipuzkoako Ahaldu Nagusirako hautagaiaren arteko elkarrizketa egin zuten ostiral arratsaldean, Giza Eskubideen parkean. Nagore Cid izan zen moderatzailea, eta haren galderei erantzunez, Elgoibarrerako eta Gipuzkoarako dituzten proposamenak eta helburuak azaldu zituzten. Erronka politiko berriaren aurrean, "ilusioz eta itxaropentsu" azaldu zen Uriguen. Herritarrekin batera "denon Elgoibar" eraiki nahi dutela esan zuen, eta EHBilduk "behar duen bul-tzada hori" emango diola herriari.

Zapatu gauetako autobusa Sigman ere gelditzen da

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du hemendik aurrera Sigma auzoan ere geldituko dela autobusa zapatu gauetan, bi noranzkoetan. Orain arte geldialdi bakarra egiten zuen autobus horrek Elgoibarren, baina Udalaren eskariz, beste geldialdi bat egiten du, joan zen zapatutik.

Alokairurako diru-laguntzak gazteentzat

Elgoibarko Udalak 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako diru-laguntzen programa jarriko du martxan etxebizitzak alokatzeko erraztasun handiagoa izan dezaten. Laguntza hau eskatzeko, ezinbestekoa izango da 2018ko errenta aitortpena eginda izatea. Egitasmo honek helburu bikoitza dauka: Alde batetik, gazteei emantzipazio prozesuan eta helduen munduan sartzen laguntzea, eta bestetik, gazteen artean alokairuan bizitzea sustatzea.

Minari buruzko ikerketa baterako boluntarioak behar dira

Josu Zabala fisioterapeuta minari buruzko ikerketa bat egiten ari da, eta lanketa horretarako boluntarioak behar ditu. Durangoko fisioterapia zentro batean egiten du lan, eta horrez gain, sei urte daramatza EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultatean irakasle elkartu bezala lanean. Une honetan, fisiologia eta neurozientziako departamenduekin lepoko min kronikoa aztertzen ari da, eta ikerketa horretarako ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak behar ditu: 18 urtetik gorakoa izatea eta gutxienez hiru hilabetez lepoko mina izatea, baina ez kolpe edo istripu baten ondorioz. Ikerketan parte hartzen dutenek lehenengo balorazioa eta kontsulta doan jasoko dute. Ondorengo tratamendua beste fisioterapeuta batekin egingo dute, eta mina gutxitu edo desagertzean, Zabalak berak egingo die berri balorazioa. Interesatuak 606 282 577 telefonora deitu edo joszabala@yahoo.es helbide elektronikora idatzi dezakete.

Zuk Zeuk Eguneko ginkanan hartu dute parte Elgoibar Ikastolako ikasleek



Zuk Zeuk Eguna ospatu zuten apirilaren 5ean Donostian, eta 400 bat gaztek hartu zuten parte ginkanan, eta tartean Elgoibar Ikastolako DBH3ko ikasleak zeuden, Bergara, Orio, Tolosa eta Oñatiko ikasleekin batera. Euskal eragileek aurkeztutako bost erronka gainditu behar izan zituzten gazteek: genero berdintasunari buruzko erronka Laboral Kutxak eta Emakundek aurkeztu zuten, mugikortasun iraunkorrari buruzkoa Mugik; gosea murriztekoa Hazi Fundazioak; aliantza intergenerazionalei buruzkoa Matia Fundazioak eta Donostia Lagunkoiak; eta etorkizuneko hezkuntzari buruzkoa Mondragon Team Academyk aurkeztu zuen. Gazteak 22 taldetan banatuta erronkaz erronka ibili ziren Donostiako hainbat tokitan puntuak biltzen. Irabazlea Oñatiko Txantxiku Ikastola izan zen, eta 20.000€-tan baloratutako bidaia irabazi zuen. Zuk Zeuk Egunaren lehenengo edizioa izan da hau, baina datorren ikasturteari begira, proiektuak landuko dituzte ikastetxeetan. Helburua da proiektu ekintzaileak garatuz ikasbidairako finantzazioa lortzea. Feel my way kooperatibak antolatu zuen egun hau. Lau gazte ekintzailek osatzen dute kooperatiba hori, tartean Nora Kortaberria elgoibartarrak. LEINN graduako ikasleak dira, eta lau urte daramatzate 14-18 urte bitarteko gazteentzat ingurune erakargarriak sortzen.

Oier Etxeberriak irabazi du Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako Elgoibarko finalerdia



Gazte Asanbladak antolatuta, Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako finalerdia jokatu zuten barixakuan Gaztetxean, eta Oier Etxeberria azpeitiarrak irabazi zuen kanporaketa. Garaipen honekin Debako finalerako sailkatu zen, eta berarekin batera, Ane Belokik eta Irati Alkantarillak ere lortu zuten finalerako txartela. Hilaren 27an jokatuko dute finala, Deban. Gazte Asanbladakoek esan dute giro ona egon zela Gaztetxean. Afaritarako 30 bat lagun batu ziren, eta bertso saioa entzutera 50 bat.

Mendaroko udalekueetan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu aurten ere Mendaroko udalekuak, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Aurten, lau asteko eskaintza egin dute, ekainaren 24tik uztailearen 19ra. Nolanahi ere, lau asteko eskaintza luzeegia zaienentzako bi txandaren aukera ere sortu dute: lehenengo txanda ekainaren 24tik uztailearen 5era artekoa izango da, eta bigarrena, uztailearen 8tik uztailearen 19ra artekoa. Era berean, adin-tartea ere zabaldu dute, eta aurten, HH2koek ere eman ahal izango dute izena. Izena emateko epea asteartean zabaldu zen eta apirilaren 26an bukatuko da. Matrikula, berriz, 120 eurokoa izango da (Mendaron erroldatuta ez daudenentzat, 180) aukera luzea hartzen dutenentzat, eta 70 eurokoa txandetako bat aukeratzen dutenentzat (90 euro, Mendaron erroldatuta ez daudenentzat). Familia ugariei %25eko deskontua egingo zaie txanda berean izena ematen duten hirugarren umeagatik. Ordainketak honako kontu honetan egin behar dira, kontzeptuan umearen izen-abizenak zehaztuta: ES 29 2095 5054 011061225891. Ordainagiria udaletxean aurkeztu behar da gero, edo bestela erregistroa@mendaro.eus helbidera bidali.

Domekan bukatuko da Atxutxiamaika eta Ludotekaren udaldian izena emateko epea

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika egitasmoak eta Ludotekak elkarlanean antolatu dute udaldirako eskaintza, eta domekan amaituko da izena emateko epea. HH2tik LH6ra arteko umeentzako ekintzak eskainiko dituzte, ekainaren 24tik uztailearen 19ra. Interesatuek Elgoibarko Izarran, Ludotekan edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunean eman dezakete izena. Informazio gehiagorako 943 741 626 (Elgoibarko Izarra) edo 943 748 883 (Ludoteka) telefonoetara deitu daiteke.



CARLOS MEDIAMILLA

“Ez dut galduko emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko esperantzarik”

► LEIRE ETXANIZ PILOTARIA

Emakume Master Cup pilota txapelketa irabazi du Leire Etzanizek (Etxebarri, 1990), hirugarren urtez jarraian. Etxebarrin jaiotakoa da, eta hango frontoian hasi zen pilotan, umea zela. 12 bat urtera arte jardun zen, eta gero, pilota utzi eta futbolean jokatzeari ekin zion. 21 urterekin itzuli zen pilotara, baina palaz. Gaur egun bietan aritzen da, eskuz eta palaz, eta bietan ondo baino hobeto moldatzen dela erakutsi du gainera. Ama elgoibartarra dauka Etzanizek, Kaskante baserrikoa, eta Elgoibarko frontoia ere ondo ezagutzen du: emakumezkoen binakako estreinako txapelketa berak irabazi zuen, eta txapelketa mistoan txapeldunorde izan zen.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **Hirugarren edizioa du aurten Emakume Master Cup pilota txapelketak, eta hirugarren aldiz zeuk jantzi duzu txapela. Ez dago zuri irabazteko arririk, ala?**

Egia esanda, ondo jardun naiz hiru urteetan. Aurreko bi edizioetan neukan bikotekidearekin oso ondo moldatzen nintzen, baina aurten bikoteak osatzeko orduan oreka zaintzen ahalegindu dira; hau da, esperientziadun pilotariak gazteekin jarri gaituzte, eta baneukan beldur apur bat. Baina txapelketan izena ematen duten pilotariak maila oso handia daukate, eta ondo moldatu gara aurten ere. Leirek [Leire Garai] 15 urte dauzka, gure mailan uste dut bera dela gazteena, eta akaso presioa igarriko zuen txapeldunaren ondoan jarri zuteanean, baina maila oso ona eman du txapelketa guztian. Ni ahalegindu naiz lasaitasuna transmititzen eta berak dakien moduan jokatzen lagatzen. Hasieran ez ginen oso ondo ulertzen, baina txapelketa aurrera joan ahala, askoz hobeto moldatu gara.

♦ **Finalean behintzat oso ondo moldatu zineten. 22-5 irabazi zenuten. Kanpotik begiratuta, oso erraz irabazi zenuela dirudi. Nolako partida izan zen?**

Guk ondo jokatu genuen, eta besteek ez zuten euren egunik onena eduki, baina horrek ez du esan nahi erraz irabazi genuenik. Gure jokoa ondo egin genuen, eta eurei ez genien laga euren egiten. Zuloak ondo tapatu genituen, eta ez genien laga tantorik egiten. Argi geneukan zer egin behar genuen partida irabazteko: Patrik [Patri Espinar] oso joko bizia dauka, aurrean jokatzea gustatzen zaio, eta gure helburua Patrik pilotari kentzea zen, eta jokoa behartuta sartzera behartzea. Hori egitea lortu genuen, eta hortik begiratu behar zaio emaitzari.

♦ **Txapelketa, oro har, nolako izan da?**

Finaleko emaitza ikusita ematen du erraza izan dela horra iristea, baina ez da hala izan. Finalaurrekoa, esaterako,

oso justuan irabazi genuen. 17-14 galtzen joan ginen, eta azkenean 18-17 irabazi genuen. Finala askoz orekatuagoa izatea espero genuen denok, baina Patrik arrisku handia hartu zuen bere jokoa, eta sartu behar ez zen lekuetan ere sartu zen. Horrek huts egite asko ekarri zizkion.

♦ **Binakakoan hiru aldiz jantzi duzu txapela, baina 4 1'erdikoan ere irabazitakoa zara. Bakarka ala binaka moldatzen zara hobeto?**

Bikoteka beti hartu behar duzu konfiantza besteari lana eta jokoa, eta binaka norberak kontrolatzen du noraino ailegatu ahal den. Bikoteka errazagoa dela dirudi, baina jakin egin behar da beste pertsona batekin jokatzen ere. Ez da hain erraza. Nik uste dut badakidala laguna ulertzen. 4 1'erdikoan falta zait tantoak amaitzea, baina nahiko ondo moldatzen naiz, dena den.

“Azken urteetan emakumea asko sartu da kirolean eta palak indar handia hartu du”

♦ **Emakumeen artean ba al dago pilotarako zaletasunik?**

Gero eta gehiago. Gure mailan sei bikote lehiatu gara, baina txapelketan uste dut 110 pilotarik eman dutela izena. Federatu gabekoek ere parte hartu dezakete, eta horrek jendea animatzen du.

♦ **Eta, ikusleen aldetik? Finalerako frontoia txiki geratu zen.**

Bai, eta iaiz Astelenan jokatu genuen, eta orduan ere jendea kanpoan geratu zen. Antolatzaileek horretan promozio lan handia egiten dute komunikabideekin, eta uste dut eurri esker dagoela emakumeen pilotarako afizioa.

♦ **Atzelaria zara. Zein da zure indargunea?**

Atzean jokatzen dut normalean, bai

eskuz eta baita palaz ere, askoz hobeto moldatzen naizelako. Baina aurrean jokatze behar badut ere, ez daukat arazorik. Nire jokoa tantoari eustea da, pilota eraman eta eraman, kontrarioa higuindu arte eutsiz. Palaz mutilekin jokatzen dut, eta hori izaten da nire aukera bakarra. Indarrean irabazi egiten didate, eurak gehiago dira, beraz, pilota eraman egiten dut, eurak huts egin arte. Teknika hori bera erabiltzen dut gero eskuz.

♦ **Palan mutilekin jokatzen duzu ligan. Nola iritsi zara horra?**

Bizkaiko txapelketan bi neska geunden nahiko ondo moldatzen ginen palan, beste neskekin konparazioan. Partidak alde handiz irabazten genituen, eta hori ez zen ona ez guretzat eta ezta beste neskentzat ere. Orduan mutilekin jokatzea proposatu ziguten. Hiru urte daramatzat palan mutilekin lehiatzen, eta oso gustura ari naiz.

♦ **Eskuz ala palaz jokatzea duzu nahiago?**

Denek galdera berbera egiten didate! Bietan moldatzen naiz ondo, eta ezin dut bat aukeratu.

♦ **Elgoibarren eta inguruko herrietan emakumezkoen pala txapelketak asko ugartu dira.**

Bai, hala da. Azken urteetan emakumea asko sartu da kirolean, eta palak indar handia hartu du, bai. Herri baten funtzionatzen duela ikusten badute, ingurukoak ere animatzen dira, eta jendea herri batetik bestera ibiltzen da askotan. Afizioa badago. Txapelketa antolatzeke jendea badago, jokatzeke jendea beti agertzen da.

♦ **Txapela jasteagatik 300 euroko saria jaso duzu. Gizonezkoetan sari handiagoak izaten dira.**

Kirol guztietan bezala, pilotan ere emakumezkoen eta gizonezkoen artean desberdintasun handia dago, baina espero dut pixkanaka gauzak aldatzen joatea. Oraindik lan handia dago egiteko, baina ez dut galduko gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna lortzeko esperantzarik. Fisikoki oso desberdinak gara, eta alde horretatik lehia

berdintasuna lortzea ezinezkoa izango da, baina baldintzetan behintzat berdintasuna lortu beharko genuke.

◆ **Pilotan jokatzearaz gain, pilota eskolak ere ematen dituzu, baina pilotatik bizi al zara? Emakume bat bizi al daiteke pilotatik?**

Ez, gaur egun emakume batek ezin du pilotatik bizi, momentuz ez behintzat. Niri kirola egitea gustatzen zait, hau da nire afizioa, eta momentuz honetan dihardut. Egunen baten beste lanen bat topatzen badut, ahaleginduko naiz pilotarekin uztartzen, baina ezin bada, pilota laga egin beharko dut.

“Lesioek errespetatzen nauten bitartean ahaleginduko naiz pilotan segitzen”

◆ **Nola hasi zinen zu pilotan?**

Betidanik gustatu izan zait kirola egitea, eta ume-umetatik baloiaz edo pilotaz jolasean ibili izan naiz. Etxebarriko frontoian jokatzeko nuen, eta 12 bat urterekin Markinako pilota eskolan sartu nintzen. Unai Iglesias izan nuen entrenatzaile bi urtez. Neskak eta mutilak batera jarduten genuen, baina 14 urterekin desberdintasunak handitzen hasi ziren. Mutilek indar handiagoa daukate, eta ezin genuen eurekin lehiatu. 14 urterekin pilota laga eta futbolean hasi nintzen. Zazpi bat urte egin nituen futbolean. 21 urte nituela Unai Iglesiasek animatu ninduen palaz jokatzeko hastera. Eta eskuz orain dela gutxi hasi naiz berriz, Emakume Master Cup txapelketa eskertariki.

◆ **Noiz arte jarraituko duzu pilotan?**

Lesioek errespetatzen nauten bitartean ahaleginduko naiz segitzen, eta txapel gehiago irabazten. Ez dut aterik itxi nahi. Lagun pila bat eman dizkit pilotari.

◆ **Pilotari lotuta, zein da zure ametsa?**

Gizonezkoetan bezala, nesken pilota profesionala sortzea. Baina hori ezin bada, nahi nuke emakumeen txapelketa honek segitzea, eta irabazi ahal badut, ba irabazi.

◆ **Etxekoek nola hartu dute zure pilotarako afizioa?**

Oso ondo. Etxean beti babestu naute, ez daukat inolako kezarik. Partida denak ikustera etortzen dira, eta ikaragarri animatzen naute.





Arg.: Fotoiosu photography

Ander Iñarrak eta Maite Maiorak irabazi dute IX. Kilimon Trail mendi lasterketa

Ander Iñarra eta Maite Maiora gailendu ziren zapatuan Mendaron jokatu zen Kilimon Trail mendi lasterketan. 2:02:51 eko denbora egin zuen Iñarrak, eta 2:26:58koa Maiorak, eta ez bata ez besteak ez zuten lortu probako markak ontzerik. Herriko korrikalari azkarrenak, berriz, Jon Larrañaga eta Maiora bera izan ziren. Orain arte jokatu diren bederatzid edizioetatik zazpitan irabazi du Maiorak etxeko lasterketa. Ibilbide motzean, berriz, Gontzal Murgoitio (0:49:05) eta Marina Gonzalez (1:01:26) gailendu ziren eta Unai Muñoz izan zen herriko azkarrena. Guztira, 330 bat korrikalariak parte hartu zuten Mendaroko Txirringuluri Elkarteak (MTT) antolatzen duen proban. Eguraldiak ere ateri eutsi zion lasterketa bukatu arte, eta jendetza batu zen herrian korrikalariak ikusteko. Lasterketetako argazkiak eta sailkapenak barren.eus-en.



Astigarragak eta Laukok zaleen babesean jokatuko dute asteburuan



Denboraldiko partida garrantzitsuenak jokatuko dituzte Sanloko Astigarraga GYS Sport eta Lauko taldeek asteburu honetan, Olaizaga kiroldegian. Astigarragak jubenil mailako Espainiako Txapelketako zortzi sektoreetako bat jokatuko du gaurtik domekara bitartean. Angel Optico Zamora taldearen aurka jokatuko dute gaur, 19:30ean. Bihar (apirilak 13) Kantabriako Liberbank BM Pereda taldea izango dute aurkari, 13:15ean. Hirugarren jardunaldian, domekan, Nafarroako Malkaitz Eskubaloia taldearen aurka jokatuko du Astigarragak, 13:15ean. Irabazleak zortzi talde onenek jokatuko duten Espainiako Txapelketako azken faseko sailkatzea lortuko du. Senior emakumezkoen Lauko taldeak ere berebiziko aukera izango du Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko fasean lehiatzeko. Fase hori jokatzeko postu bat egongo da jokoan Elgoibarren jokatuko duten txapelketan, eta lau talde lehia: Lauko, Bera-Bera, Aiala Zarauz eta C.B. Jarrilleras. Lauko final formatuan jokatuko dute. Zapatuan (apirilak 13) Donostiako Bera-Berak eta Zarauzko Aialak jokatuko dute elkarren aurkako partida, 17:30ean. Lauko Elgoibarrek eta Portugaleteko C.B. Jarrilleras taldeek jokatuko dute bigarren finalerdia, 19:30ean. Zapatuko partidak irabazten dituzten bi taldeek domekan jokatuko dute finala, 9:45ean.



Iosu Juaristi gailendu da Neguko XC Contest parapente ligan, standard kategorian

Iosu Juaristi parapente pilotu elgoibartarrak lehen postua lortu du Neguko XC Contest ligan, Standard mailan, eta bosgarren postua sailkapen orokorrean. Txapelketa honetan neguan eginiko sei hegaldi luzeenak hartzen dituzte kontuan. Pilotuek eurek eman behar dute eginiko hegaldien berri. Guztira, lehiatu diren 27 pilotuen artean 276 hegaldi egin dituzte, eta horietako 133 hegaldi izan dira lau kilometro baino luzeagoak. Iñigo Redinek egin zuen luzeena, 105,75 kilometroko hegaldia, eta sailkapen nagusiko lehen postua ere berarentzat izan zen. Juaristik eginiko hegaldi luzeenak honakoak izan ziren: Eulatetik Gasteizera (44 kilometro), Erriotik Debara (22 kilometro) eta kostaldean 21 kilometrokoa.

Euriak baldintzatu zuen Nesken Futbolaren Eguna



C.D. Elgoibarrek nesken artean futbola sustatzeko helburuarekin antolatu zuen Nesken Futbolaren Eguna, aurreko barixakuan. Tamalez, euriaren erruz, aurreikusita zutena baino motzagoa izan zen Kalegoen plazan egin zuten ekitaldia. Amaieran, Realeko emakumezkoen taldeko jokalariek sinatutako baloi bat zozkatu zuten eta argazki bat ere atera zuten Elgoibar Kirolaren Europako Herri dela adierazten duen banderarekin.

Bigarren, hirugarrenen artean

Garaipenaren atarian gelditu da oraingoan ere Angel Ibarluzea bolari elgoibartarra Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-Joko Txapelketan. Bigarren postuan sailkatu zen apirilaren 6an Eibarren jokatu zuten hirugarren jardunaldian, jarraian lortzen duen hirugarren txapeldunordetza. Sailkapen nagusian Angel Ibarluzea dago lehen postuan, orain arte jokatuako hiru jardunaldietan 20 txirlo bota eta gero. Ganix Rodriguez eibartarra dago bigarren postuan (17 txirlo) eta Iker Arizmendiarieta (14 txirlo) dago hirugarren postuan. Bikotekako sailkapenean Xabier Loiolak eta Angel Ibarluzeak osatutako bikotea dago lehen postuan, 27 txirlorekin.



Giro eta lehia polita Jose Gurrutxaga krosean

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosaren 26. ekitaldia egin zuten apirilaren 6an herriko kaleetan. Mendaroko eta Elgoibarko ikastetxeetako eskola-umeek (784 zehden izena emanda) hartu zuten parte lehen hamabi lasterketetan, adinka eta sexuka banatuta. Azkenengo lasterketan, berriz, 2001. urteaz geroztik jaiotakoek hartu zuten parte. Proba horren amaieran, gainera, Korrikaren aldeko pankarta eraman zuten ikastolako hainbat gurasok, irakaslek eta ikaslek, Kalebarren plazatik Kalegoen plazara arte. Lasterketetako sailkapenak barren.eus-en.



Andalucia Bike Race BTT proban parte hartzen ari da Iñaki Gorosabel

Spainian jokatzen diren mendi bizikleta proba garrantzitsuena da Andalucia Bike Race nazioarteko lasterketa. 30 herrialdeetako 700 txirrindulari ari dira parte hartzen sei etapako proba gogorrean, eta horien artean da Gobike taldeko Iñaki Gorosabel Laspiur. Master 50 mailan lehiatzen ari da txirrindulari elgoibartarra. Astelehenean hasi zen proba eta bihar amaituko da. Lehen etapan, 37,5 kilometroko erlojuaren aurkakoan, bere adin tarteko azkarrena izan zen Gorosabel eta seigarren postua lortu zuen bigarren etapan.



Elgoibarko Udalak 204.000 euroko laguntza emango dio Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneari

Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteko presidentek, bi erakundeen arteko 2019ko lankidetzat hitzarmena sinatu dute gaur, apirilak 12, ostirala, udaletxean. Euren batera, Maialen Gurrutxaga, Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen arloetako zinegotzi arduraduna, eta Elgoibarko Izarrako eta Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko eta Euskara sailtetako teknikariak ere izan dira.

“Udalak 204.000 euroko diru-laguntza emango dio aurten Elgoibarko Izarra elkarteari, betiere, 2019an zehar euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko”, esan du Ane Beitiak.

Aurreko urteotan bezala, diru-laguntza



Iñaki Konde, Ane Beitia eta Maialen Gurrutxaga iazko sinadura ekitaldian.

hori bi udal sailek emango dute. Horrela, Udalaren Euskara Sailetik 130.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak, eta Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailetik, berriz, 74.000 euro.

Hitzarmena sinatu ondoren, euskara

elkartek eskerrak eman dizkio Udalari, Elgoibarko Izarraren ustez, ezinbestekoa delako administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatzeko”.

The Sick and Indigent Song Club taldearen kontzertua gaur, sotoan

Sinuösek antolatuta, kontzertua emango du gaur gauetan The Sick and Indigent Song Club talde irlandarrak Kultur Etxeko sotoan. 2004. urtean sortu zen taldea, Gary Fitzpatrick dublindarra eta Angie McLaughlin eskoziarra The Ha'penny Bridge Inn ostatuan astero emanaldiak eskaintzen hasi zirenean. Handik gutxira, Shane McGrath, Christian Volkman, Gerry Fitzpatrick eta Sheila Sullivan gehitu zitzaizkien. *Inisioige Folly* (2007) izan zen beraien estudioko estraineko lana eta *Punch Drunk* (2009), bi urte geroago, hari jarraitu ziona. Talde irlandandarrak hiru emanaldi eskainiko ditu Euskal Herrian, eta gaurkoa izango da lehenengoa. 23:00etan hasiko da kontzertua.



Sara Basurtoren margolanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean

Sara Basurto elgoibartarrak margo erakusketa egingo du Kultur Etxean hilaren 23tik 30era bitartean. 17 urte ditu, eta ume-umetatik izan du pinturarako zaletasuna. Duela bost urte inguru Gemma Monreal margolariaren eskolan eman zuen izena, eta orain bere estreinako erakusketa egingo du. Oleak margotzen ditu bereziki, espatularen teknikarekin. Deneriko gaiak lantzen ditu margolanetan: paisajeak, fantasiazko pertsonaiak, irudi surrealistikak, eta baita errealistikak ere. 30 bat lan jarriko ditu ikusgai. Astelehenetik zapatara bisitatu ahal izango da erakusketa, 18:30etik 20:30era bitartean.



Goizean goiz pasatu da Korrika Mendaro eta Elgoibartik, eta Gasteizera bidean da


Gaur goizean goiz iritsi da Korrika gurera, eta Mendaro eta Elgoibar zeharkatu ostean, Azkoitirako bidea hartu du euskararen aldeko ekimenak. Euskal Herri osoa zeharkatzen ari da Korrika, eta domekan amaituko da Gasteizen.

Korrika nagusia gaur iritsi bada ere, atzo hasi zituzten euskararen aldeko ospakizunak ikastetxeetan. Elgoibarko Herri Eskolan korrika txiki-txikia egin zuten Haur Hezkuntzako umeekin, eta Mendaron, Korrika aurreko festa egin zuten atzo. Haurrentzako jolasak, antzerkia eta kalejira antolatu zituzten, besteak beste.

Gaur goizean, bestalde, Korrika txikia egin dute Elgoibarko Herri Eskolako eta Ikastolako ikasle eta irakas-



leek, eta baita Mendaroko Ikastola-koek ere. Hezkuntza ertaineko ikastetxeek, berriz, Korrika Gaztea egin dute.



'Rita arrastoan sartzen' antzerkia gaur, euskaraz

Rita arrastoan sartzen euskarazko antzezlanaren ekarriko du Txalo Produktzioak taldeak gaur Elgoibarrera. Antzezlan honetan, unibertsitateko heziketa-eredu eta konbentzio guztiak hausten dituen irakasle mozortari eta anarkiko bat ageri da. Irakaskuntzarako dituen arau eta pautak guztiak hankaz gora joango zaizkio, herri txiki bateko neska batek bere eskoletarako izena ematean. Joseba Apaolazak eta Aitziber Garmendiak beteko dituzte bi pertsonaien paperak. 20:30ean izango da emanaldia, Herriko Antzokian.

165 lan aurkeztu dituzte Elgoibarko II. idazlan lehiaketarako, eta horietatik 25 lan saritu dituzte



Euskaraz idaztea sustatzeko helburuarekin, Elgoibarko II. idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez. 165 lan aurkeztu dituzte guztira, iaz baino 23 lan gehiago, eta horietatik 25 saritu dituzte. Eguaztenez egin zuten sari banaketa ekitaldia, eta bertan Ane Beitia alkateak, Andrea Arriola Kultura zinegotziak eta Maialen Gurrutxaga Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko zinegotziak hartu zuten parte. Saridunek eresketa bonuak, diplomak eta liburuak jaso zituzten. Epaimahaia herriko literaturzale eta idazleek osatu dute, hala nola, Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok, eta esan dutenez, maila ona erakutsi dute partaideek.

Egur arte eskolako umeen lanak ikusgai, Kultur Etxean

Joan den barixakuan zabaldu zuten Egur Arte Tailerrean dabilizan umeek eginiko lanekin osatutako erakusketa, eta bihar arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean. Margolari ezagunen lanetan eta estiloetan oinarritutako lanak sortu dituzte, eta horrez gain, zeramika, beirateak eta konstelazioak ere landu dituzte. 18:30etik 20:30era egongo da zabalik.



LANA.....
Eskaerak
 Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 643 933 039

Adinekoak zainduko nituzke, gaeuz. Erreferentzia onak ditut. ☎ 688 714 388

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 643 435 780

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. ☎ 612 206 409

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 643 891 484

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 681 013 032

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, orduka, gaeuz edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 632 796 081

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gaeuz edo etxeko langile moduan. ☎ 658 464 396

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gaeuz edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 678 112 785

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 643 374 471

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 602 398 328

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. (Elena Agirre) ☎ 943 742 330 / 660 511 781

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 631 975 260

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile moduan esperientzia daukat. ☎ 632 752 739

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 627 230 784

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 247 918

Garbiketarako egiteko edo beste edozein lanetarako prest nago. ☎ 632 548 689

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. ☎ 643 435 780

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut. ☎ 671 989 434

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 292 690

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Asteburuetan ere bai. ☎ 643 932 943

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. ☎ 631 506 763

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako prest nago. ☎ 631 729 476

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 602 490 595

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Persona arduratsua. Malgutasun osoa. ☎ 612 476 921

Eskaintzak
 Meraki ile-apaindegian laguntzaile postua eskaintzen da, lan-jardun erdiz eta bereahala hasteko. ☎ 634 261 485


PARTIKULARRAK.....
 Batxilergoko matematika eta kimikako klase partikularrik emango dituen irakaslea behar dugu. ☎ 645 728 812

ETXEBIZITZAK.....
 Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. IMHko ikaslea naiz. ☎ 690 944 234

GARAJEAK.....
 Garaje itxia alokatzen dut, Jausoron. ☎ 647 216 314

OSPAKIZUNAK.....
 1932an jaiotako kinto bazkaria, apirilaren 27an, Txarridunan. 12:30ean meza Maalako elizan, eta bazkaria, 14:30ean. Castrillejo estankotan eman behar da izena.

1969koen kinto bazkaria maiatzaren 18an, Sigma jatetxean. 12:00etan batuko dira Leku Ederren, eta 12:30ean aterako dute argazkia. 69 euro ordaindu behar dira, kontu honetan: ES53 3035 0007 2500 71136817



XVIII. URTEURRENA

Francisco Javier Zarzuelo Altuna

2001eko apirilaren 10ean hil zen, 48 urte zituela.

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da.

Zure izeba Lide Altuna





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
 Euzko Elkarte Administrazioaren Erakunde Nazionala



ROSA M^a PINTADO

Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Lokal komertzial baten jabea naiz, eta nire lokaleko sabaia bi komunitetako barne-patio baten lurra da. Nire lokalean itokinak ditut, patio horretatik datozen itokinak dira, eta behin eta berriz esan didan arren, ez komunitate batek eta ezta besteak ere ez didate irtenbiderik ematen. Jakin nahi nuke nori dagokion lur hori konpontzea, nik itokinik ez edukitzeko.

Lehenik eta behin zure lokalaren egoera aztertu beharko genuke, dirudien ez delako lokal bakarra, baizik eta, elkartuta dauden bi. Zuk diozun moduan baldin bada, lokalaren gainean bi patio daude, bakoitza komunitate bati dagokiona, normalena juridikoki izan beharrik ez duen arren, bakoitza eraikin desberdin batekoa izatea da.

ONDORIOA: Zure arazoari irtenbidea ematea itokinen jatorria dagoen patio zehatzaren komunitateari dagokio. Itokin horien jatorria non dagoen argi ikusten ez bada, aditu bati deitzea izango da egokiena. Itokinen jatorria zehazten duenean, patio hori dagokion komunitatea zein den ere zehaztuko du, eta zure eskaera komunitate horri bideratu ahal izango diozu. Jabetza pribatu bateko elemento komun bati dagokion arazoa denez, dagokion komunitateak hartu beharko ditu bere gain konponketa egoki bati dagozkion gastuak.






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Sara!** Apirilaren 23an, 7 urte! Ondo pasa eta muxu handi bat familia-koen partez.




Zorionak, **Danel!** Oso ondo ospatu genuen zure 6. urte-betelzea. Patxo bat, bereziki, Peioren partez.




Zorionak, **Libe!** Izugarri maite zaitugu.



Zorionak, **Ekin!** 11 urte ez dira egunero betetzen. Ondo ospatu! Asko maite zaitugu, artista.



Apirilaren 17an 9 urte! Zenbat hazi zaren! Egun ona pasa! Zorionak, **Xabat.**



Azkenean zure txanda iritsi da! Zorionak, **Miren,** atzo 3 urte egin zenituelako.



Zorionak gure txapeldunari hilaren 17an 10 urte beteko dituelako. Primeran pasatuko dugu! Muxu potolo bat familia-koen eta bereziki, Anderren partez.



Zorionak, **Libe,** martitzenean 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez eta bereziki neba Lukenen partez. Asko maite zaitugu.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

IKASBAI
AKADEMIA

IKASGO
ACADEMY

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaeelgoibar@gmail.com

IKASGO
ACADEMY

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

IKASBAI
AKADEMIA

- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

UDABERRI-UDARAKO OIHAL BILDUMA BERRIA

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.



RPS 183472



40. urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzuroptika.com

➤ Apirileko eskaintza:

20€

TOTAL-1 lentilak erostean arteko deskontua *kontsumatu baino lehen



➤ Apirileko zozketa:

Zozketa 50€ ko hiru erosketa bono, optikan gastatzeko

50€

50€

50€



Aurreko hilabeteko sarituak:

SARA ZENDOIA
OINATZ ASTORKIA
ANDONI ETXEBERRIA

12 BARIXAKUA

6:50 Korrikaren lekukoa hartuko dute mendaroez txatarri parean.

Korrikari ongi-etorria Elgoibarren

7:00 Mauxitxa txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik, Maalaraino.

7:15 Korrikari ongi-etorria, Txarridunako biribilgunean, Mauxitxa txarangak girotuta.

10:30 Korrika Txikia, Maalako parkean hasita.

11:30 Korrika Gaztea. IMHK, Mekak eta Institutuak antolatuta.

17:00 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

19:30 Musika Eskolako bandaren kontzertua, Maalako parkean.

20:30 Antzerkia: *Rita arrastoa sartzen*. Txalo produkzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

23:00 Kontzertua: *The sick and the indigent song club*. Si-nüsek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

13 ZAPATUA

12:00 Pentsio duinen aldeko manifestazioa. Eibarren. Elgoibarko Duintasuna elkartetik hara joateko deia egin dute.

14 DOMEKA

9:30 Mendi irteera: Aloñara. Morkaikok, Herri Eskolak eta Ikastolak antolatuta. Mintxetan elkartuko dira.

16:30 Familia antzerkia: *Drag-E uraren bila*. Herriko Antzokian.

15 ASTELEHENA

19:00 Isiltasun Eskolaren Topaketa. Meditazioa eta hitzaldia: *Isiltasunak dio*. Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea Kalegoen plazan.

16 MARTITZENA

19:00 Isiltasun Eskolaren Topaketa. Meditazioa eta hitzaldia: *Isiltasunak dio*. Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxeko sotoan.

17 EGUAZTENA

19:00 Isiltasun Eskolaren Topaketa. Meditazioa eta hitzaldia: *Isiltasunak dio*. Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxeko sotoan.

23 MARTITZENA

18:30 Margo erakusketa: Sara Basurtok bere lanak jarriko ditu ikusgai hilaren 30era arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

24 EGUAZTENA

18:30 Hitzaldia: 'Mendekotasunarekiko arreta: oraina eta geroa' Ander Rodriguez Aldundiko Gizarte Politikako diputatu ohiak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

12 BARIXAKUA	13 ZAPATUA	14 DOMEKA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti / *Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Fernandez
15 ASTELEHENA	16 MARTITZENA	17 EGUAZTENA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia
18 EGUENA	19 BARIXAKUA	20 ZAPATUA
Egunez *Ibañez	Egunez *Ibañez	Egunez Yudego
Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Yudego
21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA
Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea
24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIXAKUA
Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00

Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)

'Mula'

13 zapatua: 19:00 / 22:15

(VOS)

14 domeka: 19:00

15 astelehena: 21:30

'El Papa Francisco:

Un hombre de
palabra'

18 eguena: 21:30

19 barixakua: 21:30

'Creed II'

20 zapatua: 19:00 / 22:15

(VOS)

22 astelehena: 21:30

'Capitana Marvel'

21 domeka: 16:30 / 19:00

*Marcelina Soraluze Leyaristi*

2019ko apirilaren 4an hil zen, 88 urte zituela.
Haren oroimenez meza izango da, domekan,
apirilaren 28an, 10:30ean Elgoibarko Sallobenteko elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Nahiz eta hemendik
urrutira joan
beti izango zaitugu
gure bihotzean.***


Etxekoak

*Adoracion Garrido Navarro*

2019ko apirilaren 9an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa
ezerk ez du lausotuko.***

Etxekoak





Jose Liberal Dominguez

2019ko apirilaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure bizitzeko gogo, alaitasuna eta ontasuna.
Izan zaren senar, aita, aitona, aitagarreba eta
lagun onak gidatuko gaitu zu gabe hutsik geratu den bidean.
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.***



Jose Liberal Dominguez

2019ko apirilaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.
***Izan zarenagatik eta erakutsi duzunagatik,
betirako gure bihotzean.***

Zure ilobak



Fernando Gonzalez Mediavilla

2019ko apirilaren 6an hil zen, 55 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



M^a Luisa Garate Aizpitarte

2019ko apirilaren 9an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure irribarre goxoa
eta maitasuna
beti izango dira
gure bihotzean.***

Etxekoak





Juan Betelu Azurmendi

Zubi-Ondo elkarteko bazkide fundatzailea

2019ko apirilaren 3an hil zen, 89 urte zituela.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***





FAMILIENTZAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK, HAURREK ETA NERABEEK UDAKO AISIA ESKAINTZAN PARTE HAR DEZATEN

NORENTZAT:

- * Familia ugariarentzat eta guraso bakarreko familientzat: kuota osoaren % 30.
- * Aurreko familia ereduak izan gabe, bigarren seme-alabaren izen-ematea egiten dutenentzat: kuotaren % 30 (bigarren izen-emate horretan).
- * Gizarte izaerako hauetako diru-laguntzaren bat (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntza) jasotzen duten familientzat: kuotaren % 70.

NON ESKATU:

- * HAZen (Herritarren Arreta Zerbitzua), Santa Ana kalea, 2.
- * Elgoibarko Udaleko erregistro elektronikoa (www.elgoibar.eus, egoitza elektronikoa).

NOIZ ESKATU:

- * Haurrentzako eskaintza: maiatzaren 15a baino lehen.
- * Nerabeentzako eskaintza: ekainaren 19a baino lehen.



Osasun gida

aldaz
horts klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku edero
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 18
943 740 191 / 667 553 028
www.fisio-mas.com
RPS 172/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

Osasun gida